

ZENBAT BURU

Aitzol Arriola

ERREPORTAJEA

J.L. Ansola, "Gatito"

30 urte eta gero
berriz etxean

BARREN

1999ko uztailaren 2a
VII. urtea - 285. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

GEHIGARRI

BEREZIA

Autoak



Ondo ibili!

KIROLA

98/99 C.D. Elgoibar
elkartearen batzar
orokorra

KULTURA

Urruzunori buruzko
liburu berria kalean



Jose Luis Ansola:

**"Deportatuen bizimodua
sikologikoki oso gogorra da"**

"Zenbat urrunau, etxeko akordu gehixau" Esaera zaharra

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43-1. – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres ibilbidetik) – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR

L
i
K
i
d
a
z
i
o
a



kirolak



kirolak

**k
i
r
o
l
a
k**

Gure bezeroei jakinarazi
nahi diegu

UZTAILAREN 1etik AURRERA

gure dendan

LIKIDAZIOAK izango direla
negozioa ixten dela-eta.


kirolak



kirolak



kirolak



AITZOL ARRIOLA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeraten dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Zer kolore dakar gaur?

Jaio nintzenetik bizi izan naiz Elgoibarren. Beti ezagutu izan dut “king kong”a, baita “karakola” ere. Gauza batzuek asko aldatu diren arren, beste batzuek bere horretan dira. Umetan *Gabilondoko* hondakinetan ibiltzen ginen jolasan, orain, berriz, aparkaleku bat dago bertan. Elgoibarko futbolaren katedrala *Lerun* izatetik, *Mintxeta* izatera igaro da. Sigmako sirenarik ez da jada entzuten. Bai, ordea, IMHkoa. Elgoibar aldatzen ari da, nahiz eta elgoibartarrok ez konturatu. Hala ere, gauza guztiak ez dira berdin aldatu. Deba errekek azken 27 urteetan behintzat berdin darrai. Beti bezain kutsatuta.

Uholdeak direla-eta, hasi Andikanon eta San Pedrorainoko erreka zatia kanalizatu zuten. Zemento artean datorren ubide nazkagarri bat dirudi. Askotan berde edo pitzez zuri, neguan sarritan marroi eta beste batzuetan urdin zein gorri. Baina azken batean, zikin baino zikinago.

Egia da azken urte hauetan gauzak hobe direla, apur bat bada ere. Orain plastiko eta kristal artean uroilo batzuk badau-

de. Aingira batzuek ere animatzen dira errekan gora. Baietz honez gero mutanteak izan?

Elgoibarren eta Deba Bailararen garapen industrialaren ordaina izango da. Baina 50. hamarkadan erreka erre zutenetik, ondo ordainduta dagoelakoan nago.

Ibaiaren kontserbazioa eta garbitasuna zaintzeko legeak egon, badaude. Batzuek betetzeko asmorik ez dute behin ere izan. Eta gainerakoek betearazteko ahalegin handirik ere ez dute egin.

Ba omen da plangintza bat depuradora jartzeko eta egoera aldatzeko. Urteak daromatzen han edo hemen kokatu behar du-

tela entzuten. 2.000. urterako ibaian arrainak ikusiko genituela zioen politikorik ere izan da. Baina nik mometuz zapaburuak, arratoiak eta arratoi hegalaria (ahateak) besterik ez ditut ikusi.

Azken batean ohitu egin gara Deba erreka horrela ikusten. Beti honela egon da eta...Bada garaia, ekologia modan dagoen sasoi honetan, gauzak aldatzen hasiteko. Baina bitartean errekek zer kolore dakarren galdetzen jarraitu beharko dugu.

“2.000. urterako ibaian arrainak ikusiko genituela zioen politikorik ere izan da, baina nik, momentuz, zapaburuak, arratoiak eta arratoi hegalaria (ahateak) besterik ez ditut ikusi”

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarria

LAGUNTAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA

Maitane Cid

MAKETATZAILEA

Bea Ansola

ADMINISTRATIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA

Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale


LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlearitzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Ermuaranbideko zarata dela-eta

Leerro hauen bidez, Elgoibarko alkatearen jokabidea publikoki salatu nahi dugu. Ermuaranbide bizitegi-aztoa izanik, bertan *Ebaki* estanzazio lantegiaren jarduna baimendu duelako, udal espediente baten bidez, auzokideon kalterako eta aipatu enpresaren onerako. Gure bizilekuen ondoan, Ermuaranbide kaleko 3. pisu batean jardutea onartu die Elgoibarko Udalak. 1997an hasi ziren lanean, beharrezko baimenik gabe eta baimen hori lortzeko behar zuen proiekturik ez zuen 1998ko ekainera arte aurkeztu.

Tarte zabal honetan Udalak ez du ezertxo ere egin, behin eta berriz eskatu zaion arren, nahiz eta jakin aipatutako enpresak sortzen zituen zaratak legeak onartzen dituen mugetatik gorakoak direla, auzokideok eskatuta udaltzainek egindako neurketan horrela nabarmendu baitzen.

Alkateak Arartekoaren gomendioak behar izan zituen behin eta berriz, 1999ko urtarrilean, salatutako enpresaren instalazioak isteko. Egoerak honela iraun zuen apirilera arte.

Hala ere, nahiz eta enpresak oraindik baimenik izan ez eta legeak onartzen dituen baino zarata eta dardara gehiago eragin, alkateak, bere kabuz eta auzokideoi jaramonik egin gabe, onartu egin du *Ebaki*-ren legez kanpoko jarduna.

Horrela, alkateak legez kanpoko jardura onartzen duelako, urte eta erdi pasa ondoren, hasierako egoera berean aurkitzen gara, gure bizilekuen ondo-ondoan dugun jardura jasangaitz, zaratatsu, kontrolrik gabe eta legez kanpoko baten aurrean eta hori guztia, legea ez betetzeak eta auzokideoi kalte egiteak alkateari axolarik ez diolako.

Argi dugu horrelako jarduerarik ez zuela onartuko herriaren erdigunean eta, horrenbestez, honako galdera hau harira dator: Noiz arte izango dira, alkate jauna, lehen mailako eta bigarren mailako hiritarrak Elgoibarren?

Jose Liberal eta Ermuaranbide kaleko beste 5 bizilagun.

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

GALDERAK

◆ Neska koadrila batek honako galdera hau luzatu digu: **San Bartolome jaietan Udalak zer barraka mota ekartzeko asmoa du?** “Aurreko urteetako barrakak haur txikientzat ziren egokiak, baina ez 14 urtetik gorakoontzat”. Erantzun bila kultura zerbitzura deitu dugu eta honako hau da eman diguten azalpena: “Oraindik goizegi da zein barraka ekarriko ditugun erabakitzeke, beste gauza batzuek lehentasuna baitaukat. Dena dela, aurtengo barrakak

ere ezingo dira oso handiak izan. **Leku falta da daukagun arazorik larriena eta barraken jabeek leku alternatiboak eskaini dizkiegun arren ez dituzte onartu, barrakak erdigunean jartzea nahi dituzte-eta.** Barrakak jartzeko leku apropos bakarra Plaza Txikia dela esaten dute, baina baserriarren eguneko feriak eta zezen enbolatuek lehentasuna dute. Guri ere gustatuko litzaiguke barraka handiagoak eta ikusgarriagoak ekartzea baina ez dago gure esku”.



KEXAK

◆ Herritar batek deitu digu honako kexa hau azaltzeko: **“San Inazio kalia norbaitxi pinturia lurrera jausi jakon aspaldi eta kamiño gaineko mantxiak hor jarraitzen dau oindio-kan.** Santa Ana kalia asfaltatu berri dabe eta aukera ederra galdu dabe horren gaizki ematen daban mantxa hori kentzeko”.

TXALOAK

◆ Ama batek **Herri Eskolako 3. 4. eta 5. mailakoak txalotu nahi ditu eta bereziki Josema, Amaia eta Agurtzane, ‘Osasunkume’ programan beraien partaidetza nabarmena izan baita.** “Ikastetxea ere zoriondu nahi dut, jaso duen aipamen edo ‘plaka’ bereziagatik. Segi aurrera eta eutsi gogor osasunari”.

B AI, E SAN?



Mila Osoro

Ume saharaiarrak etxean hartuko dituen elgoibartarra

Datorren asteartean, hilak 6, Elgoibarrera 6 ume saharaiar ekarriko dituzte. Elgoibarko 5 familiarekin igaroko dituzte udako oporrak eta ondoren berriz Saharara itzuliko dira. **Gu haur saharaiarrak etxean hartuko dituen Mila Osororekin, egon gara egitasmo honen berri jakiteko.**

- Bi haur saharaiar izango dira zuen etxean udan. Nola jakin zenuten egitasmo honen berri?

- Alabetako bati Ikastolan eman zioten honen berri. Uda nahi-ko libre geneukan eta Saharatik Elgoibarrera haurrak zetozela jakin genuenez, etxekook hartzea erabaki genuen. Bi mutiko egongo dira gure etxean. Euskal Herrira ume saharaiar asko datoz baina gipuzkoara baino Bizkaira joango dira gehiago.

- Zein baldintza eskatu dizkizute haurrak hartzeko.

- Ez digute inolako baldintzarik jarri. Handik atera eta ona ekartzea infemutik zerura etortzea bezelakoa da beraiantzat. Itzaletan 50 gradutan bizi dira eta urarekin izugarritzko arazoak daukate. Handik gaixorik datoz gehienak eta sendagileen kontrola beharrezkoa izango da. Normalean etortzen diren baino askoz hobeto itzultzen dira. Elikadurarekin arazo asko daukate eta hemen frutak eta berdurak jaten dituztenez, izugarritzko hobe-kuntzak izaten dituzte.

- Ba al daukazue Saharako egoeraren berri ?

- Gauza askorik ez, baina orain erreferendumaren gaiarekin dabilta. Pozik daude agian hona etorriko diren azken uda dela pentsatzen baitute. Izan ere, hori beraien lurraldera itzuliko direnaren seinale izango da. Saharaiak ez badatoz eta esperientzia ongi ateraz gero, egongo dira beste batzuek etxean hartzeko.


- Zer espero duzue esperientzia berri honetatik?

- Betidanik eduki dudan ilusio bat beteko dut, baina badauzkat zenbait zalantza. Hizkuntzarekin ez dakit nola moldatuko garen. Beraiek arabiarrez hitz egiten dute eta espainola bigarren hizkuntzatzat daukate, baina oso gaizki moldatzen dira, beraz, euskaraz ikasiko dute edo bestela keinuekin moldatuko gara. Beldurra ematen didaten bi gauza autoak eta leihoak dira, beraiek ez baitituzte ezagutzen, ezta itsasoa ere. Azken finean, beraiek pozik ikustea da esperientzia honetatik espero dudana.




I. URTEURRENA

1998ko uztailaren 4an, 27 urte zituela hil zen **ALBERTO MARTIN MORENO**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 3, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



JOSE LUIS ANSOLA

“Erbestean pasatutako urteek ez didate etxera itzultzeko gogoa inoiz kendu”



Erbestean eta espetxean 31 urte pasa ondoren, Jose Luis Ansola, “Gatito” edo “Peio Zaharra” ezizenez ezagunagoa, pasa den ostiralean, hilak 25, itzuli zen Elgoibarrera. Heldu berri zela hitz egin genuen berarekin. 30 urtek gauza askori buruz hitz egiteko aukera ematen dute, eta hauek izan ziren askatasun estreinatutako berriaren ondoren kontatu zizkigunak. Ordu batzuek beranduago ongi-etorri eta omenaldi beroa jaso zuen Plaza Handian.

■ 31 urte eta gero Elgoibar berriz ikusteko irrikitan izango zinen, ezta?

Bai, izugarritzko gogoa neukan nire herrira itzultzeko. Autopistatik Elgoibarreruntz nentorrela Itziarko peajearen irtetzea pentsatu dugu, bazter guztiak patxadaz ikustea nahi nuen eta. Elgoibarrera hurbiltzen ari nintzen heinean oroitzapenak bata bestean atzetik etorri zaizkit burura. Itziar jaisten, adibidez, mutil koskorra nintzela bizikletatik jausi nintzen egunaz gogoratu nahiz. Gertaera kuriosoa izan zen, frantses matrikuladun auto baten aurka jo nuen eta konortea berreskuratu nuenean Debako guardia zibilen koartelean esnatu bainintzen. Oso sentsazio bereziak nabaritu ditut.

■ Aldatuta ikusi al duzu Elgoibar?

Herria oso modernizatuta aurkitu dut, oso polita dago. Gauza berri asko ikusi ditut, beste asko aldatuak eta beste batzuek desagertu egin dira. Gauza asko ezagutu ere ez nituen egin: herriko sarrerak (Lerun aldea), Urasandi auzoa, zenbait zubi, udal-etxearen atzeko parkea... Erdiguneko kaleak, berriz, ezagutu nituen moduan daude, nahiz eta asfaltatu berria duten. Errosario eta San Bartolome kaleak estuagoak direla iruditu zaizkidala aipatu diot lagun bati, baina berak “kaleak ez ditxuk estutu motel, lehen moduan jarraitzen juk” erantzun dit. Zenbait gauza desagertu egin dira.

Herri erdian zegoen palazio zoragarria izan da bat (gaur egun King-Kong etxea dago). Gauza askok harritu nauten, 31 urte ez baitira alperrik pasatzen. Dena dela, oraindik ez dut guztia ikusteko astirik izan. Hemendik aurrera egongo da denborarik bazterrak ezagutzeko, zorionez libre bainago.

■ Urteek izakera eta pentsamoldea aldatu al dizute?

Ez, lehengoa naizela uste dut. Erbestean urte asko pasa dituzten errefuxiatu eta deportatu asko, ezkondu eta ez dira Euskal Herrira bueltatzen, baina nik beti izan dut buruan etxera itzultzea. Horrek ez du esan nahi egon naizen lekuetan integratu ez naizenik, baina nire asmoa beti izan da Euskal Herrian bizi ahal izatea.

■ Zein dira errefuxiatuok eta deportatuok dituzuen arazo nagusiak?

Dudarik gabe, norbere tokitik kanpo egotea. Deportatuaren bizimodua

“Hemendik aurrera egongo da denborarik bazterrak ezagutzeko, zorionez libre bainago”

sikologikoki oso gogorra da. Errefuxiatu eta deportatu askok ezin izaten dute jasan eta sikologoaren laguntza behar izaten dute. Semea, emaztea eta senideak urtean oso gutxitan joan dai-

tezke bisitan, gastu handia baita. Nire kasuan, ameriketan egin nuen denboraldian etxetik milaka kilometrotara nengoen, eta klima, hizkuntza eta ohitura berrietara ohitu beharra neukan. Leku ezberdin bakoitzean bizimodua hutsetik hastea modukoa da. Bestalde, deportatuen arteko elkarbizitza nahiko zaila izaten da. Norbere etxean eta senideekin bizitzea eta noizean behin lagunak bisitatzea gauza bat da, familiakoengandik hurrun eta lagunekin bizitzea, ordea, zailagoa da.

■ **Bazirudien une batean presoak hurbiltzeko aukera eskura izan zela, baina...?**

Baliteke hala izatea, baina PPK bere bake prozesu propioa darama. ETAK su-etenarekin lehen pausoa eman du, eta orain PPrein gobernuari dagokio ETArekin elkarriketak edo kontaktuak izatea. Bestalde, bake prozesuak aurrera jarrai dezan presoak kaleratzea ‘sine quan non’ baldintza dela uste dut. Alderdi abertzaleak bat eginik aurrera jarraitzea ere oso garrantzitsua da.

■ **Euskal Herria momentu historikoa bizitzen ari da, politikan jarraitzeko**



Ostiralean, hilak 25, herritarrek ongi etorri beroa eskaini zioten Jose Luis Ansoa, preso politiko ohiari, 31 urte erbesteran eta kartzelan pasa ondoren.

unerik egokiena al da?

Bai, Euskal Herria momentu historikoa bizitzen ari da. ETArekin su-etenak hasiera eman dio prozesu politiko berriari eta benetako politika egiteko ordua iritsi da.

Niri dagokidanez, ez dut politika sekula utziko, baina heldu berria naizenez nire burua orekatzea eta zentratzea falta zait. Nire arazo pertsonalak konpontzeko astia behar dut oraindik.

31 urte ez dira alperrik pasatzen

Azken 31 urte hauetan Jose Luisek herrialde eta gartzela asko eza-gutu ditu. Sei aldiz egon da espetxean, egonaldi luzeena 4 urte eta erdikoa izan zen eta gainontzeko urte guztiak erbesteran pasa ditu deportaturik eta errefuxiatuta. Urte luze hauek kronologikoki eta ahalik eta laburren azaltzen saiatu gara:

■ 1968ko abenduaren 15ean hasi zuen bere ibilbide luzea. Egun horretan ezkutuan pasa baitzuen muga Larrunetik, eta Baionan errefuxiatu zen. Garai gogorak ziren eta atsedean hartzeko hurrun joateko beharra sentitu zuenez, Mexikora alde egitea erabaki zuen. Mexikon arreba bat zuen eta bi urte egin zituen bertan lanean.

■ Handik Europara bueltatu eta Iparraldean finkatu zen. 83an gendarmek atxilotu zuten eta 4 hilabete gartzelan pasa ostean, Panamara deportatu zuten beste 7 preso politikorekin batera. Panamako egoera politikoa ez zen egonkorra eta joan beharra izan zuen.



■ Kuba euskal preso politikoak hartzeko prest azaldu zen eta bertara joan ziren. Jose Luisek esan digunez herbestean pasa dituen unerik onenak pasa zituen Kuban, “oso ondo hartu gintuzten, ongi etorri ‘apoteosiko’ eta guzti. Kubarrek lurraldea goitik behera erakutsi ziguten eta iraultzaren lorpen guztiak azaldu zizkiguten”. Kubatik Frantziara itzuli zen, Pau-ra hain zuten ere. 1986an atxilotu egin zuten eta 4 urte eta erdi pasa zituen gartzelan.

■ 93an gendarmek bere etxea miatu zuten eta 3 egun egin zituen atxiloturik, “espainiar justiziak gartzeleratua nengoela aprobetxatu zuen nire estradizioa lehenengoz eskatzeko. 1980an Ispasterren 6 guardia zibilen kontra izandako atentatu baterako informazioa eskaini izana leporatzen zidaten”. Frantziako epaileek ez zuten estradizio eskaria onartu.

■ 1998. urtean bigarrenegoz eskatu zuten Jose Luisen estradizioa, 83ko sumario berdinarengatik. “Oraingoan ere ez zen eskaria onartu, baina dena dela, Aranjuezko gartzelara bidali ninduten. Azkenean Frantzia eta Espainiako gobernuen artean araututako estradizioa izan zela argitu genuen.

Ba al duzu aire libreko zine emanaldietara joateko ohiturarik?



MIREN ESNAOLA
14 urte, ikaslea

Bai. Oporretara irten aurretik gauetan lagunekin joaten naiz plazara. Batzuetan aulki falta izaten da. Baina badu bentaja bat, ez da ordaindu behar pelikulak ikusteko.



CLAUDIO ARMERO
72 urte, jubilatua

Ez naiz sekula joaten. Gaztetan ez nuen gogoko eta orain ere ez zait zinera joatea gustatzen. Nire ilobak joaten dira baina ni ez naiz inoiz izan aire libreko zine emanaldietan.




Mª VICTORI JAUREGI
48 urte, etxekoandrea

Bai, beti joaten gara, gainera pelikularen aitzakiarekin kafe bat hartzen dugu. Aire librean filmeak ikusteak badu bentaja bat, aspertuz gero, alde egin dezakezu.




FELI LORENZO
32 urte, etxekoandrea

Batzuetan joaten naiz. Ez naiz oso zinezalea baina gau ederra baldin badago plan ona da pelikula bat aire librean ikustera joatea, eta pelikula interesgarria bada hobe.



ASIER PIRES
12 urte, ikaslea

Bai joaten naiz. Interesatzen zaizkidan pelikulak ikusten ditut. Gainera ez da dirurik gastatu behar. Beste zineetan baino gusturago egoten naiz plazan.



JOSE PEREZ CORTES
76 urte, jubilatua

Batzuetan joaten naiz, gustuko pelikula bada. Herriko Antzokira ez naiz pelikulak ikustera joaten andreaki ez zaiolako gauetz ateratzea gustatzen.

Miopia

Excimer laser

Lasik

Jose Ignacio Recalde Yurrita

Mediku Oftalmologoa

Laserrarekin interbentzioak BILBON

Urtzaile kalea 2, 1 · EIBAR Tel.943 20 18 44

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🏍️ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

*Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.
Zatuz informazio eske!*

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11

ISPILUARI DEGIRA



Claudia Salgueiro

SALEGI Gozotegikoa

-Zure bizitzako une gozo bat?

- Alaba eta semea jaio ziren egunak.

-Eta zein une garratz gozatu nahi zenuke?

- Une garratzak ahaztea eta aurrera begiratzea nahiago dut.

-Esnerari krema kentzen dioten horietakoa al zara?

- Ez, krema gustatzen zait.

-Bizitza bonboi kaxa bat bezalakoa al da, sorpresaz be- tea? - Bai, ezusteko asko daude.

-Zer egingo zenuke senarrak "croissant" baten modu- ko adarrak jarriko balizkizu?

- Ez dakit, ezin baitut nire burua egoera horretan imaginatu.

-Entzutea nahi zenukeen notizia "bonba" bat?

- Pakean bizi garela.

-Zure urtebetetzean zein zine izar gustatuko litzaizuke tarta batetik irtetzea? - Mel Gibson.

-Sekula deitu al dizute "bollito"?

- Bai, gaztetan batez ere.

-Sekula eman al dizute goxokirik gero ahotik kentzeko?

- Bai, eta min handia egiten du horrek.

-Zer egingo zenuke lagun batek tarta bat aurpegira bo- taz gero? - Beste bat bota.

-Zer ikusi nahi zenuke kremarik gabeko "kanutillo" batetik? - Jendearen artean errespetu gehiago dagoela.

-Zein irlatako "palmeraren" azpian egon nahi zenuke?

- Jendea eta beroa dagoen edozein irlatan.

-Zer egiten zaizu "merengea" bezain enpalagosa?

- Gauza bat esan eta kontrakoa egiten duen jendea.

-Udarako helatu zapora bat?

- Bainilazko izozkiarena.

-Goizetan zein gosarik jartzen zaitu martxan?

- Kafeak eta gozoren batek.

-Lanbidez aldatzekotan, zer izan nahi zenuke?

- Arkitektoa.

-Zein da zure anbizioa? Eta bizioa?

- Anbizioa zoriotsua izatea eta bizio bat, janaria.

-Dentistei komisiorik kobratzen al diezue?

- Ez, baina ez litzateke idea txarra izango, laguntzen die-
gu-eta.



karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49



Anchústegui s.a.
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71

● **San Ferminetako entzierroak Kultur Etxeko pantailan ikusteko aukera**

Urtero bezala, Udal Kultur Sailak Kultur Etxeko hitzaldi gelan duen pantaila handian San Ferminetako entzierroak ikusteko aukera eman nahi die herritar guztiei. Entzierroak Uztailak 7, 8, 9, 12 eta 13 egunetan ikusi ahal izango dira goizeko 8:00etan. Beraz, Iruñeara joan gabe entzierroak lagun giroan bizi nahi dituzten elgoibartarrek aukera aproposa izan go dute.

● **EAJ-PNVk ez du Gobernu Batzorderako PPrekin traturik egingo**

EAJ-PNV Elgoibarren alderdi botatua izan zenez, joan den astean Gobernu Batzordea osatzeko bilerak egiten hasi zen. Gillermo Garatek adierazi zuenez, lehenengo EA eta EH alderdi abertzaleekin bildu zen, baita PSE-EErekin, alderdi hau azken legealdietan Gobernu Batzordean egon baita.

Bestalde, PPrekin bat egiteko aukera baztertu egin du. Hala ere, Garatek berriekin bilera egingo duela esan du, baldin eta biharko, uztailaren 3ko plenoan alkate izendatzen badute. "Lau urtetako legealdi luzea daukagu oraindik aurretik eta denen lana izan beharko dugu kontuan zerbait lortu nahi badugu". Bilerak egin arren ia ziurtzat jotzen da Elgoibarko Udalean alderdi abertzaleen arteko hitzarmena izatea. Baina ez da baztertu behar PSE-EErekin Gobernu osatzeko idea.

Aparkaleku arazoa dela-eta Debako hondartzara joateko transporte publikoak gehitu dituzte

Orduero izango dira trenak eta autobusak goizeko 9:00etatik arratsaldeko 20:00etara

Deban dauden 1200 aparkamentu plazak ez dira nahikoak udarako. Izan ere, uztailean eta abuztuan hondartzara jende ugari joaten denez, Autoak uzteko arazoak izaten dira. Gainera, iaz 1340 automobilentzako lekua zegoen, baina aurten obrak direla-eta 140 plaza gutxiago izango dira. Aparkaleku handiena hondartza ondokoan dago, 500 plazatakoa hain zuzen ere. De-



Deban 1.200 automobilentzat daude aparkamentu plazak, horietatik 500 hondartza ondoko aparkalekuan.

bako merkatu plazaren ondoan dagoen zona urdinean 100 autorentzako lekua dago eta herrian bertan, 600 auto sartzen dira. Normalean zona urdinak erabiltzen dituztenek kontuan izan beharko dute ekainaren 15etik irailaren 15era tarifak aldatu egingo direla. Autoa ordu betez edukiz gero, 50 pzta. ordaindu beharko dira eta zona urdinean gehienez egon

daitekeen denbora 3 ordukoa da. Autoa aparkatzeko arazoak ez izateko irtenbiderik onena transporte publikoak erabiltzea da. Jende askok bide honen aldeko apustua egiten duenez, *Eusko Tren* enpresak udarako ordutegi berria prestatu du. Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 20:00ak bitartean orduero izango dira trenak, baita autobusak ere.

Herriko 9 sektoretako kideek hartuko dute parte presoak Euskal Herriratzearen aldeko enkarteladan

Euskal presoak herriratzearen aldeko plataformak biharko, uztailak 3, larunbata, 4 ordu eta erdiko enkartelada antolatu du. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:30era bitartean Plaza Handian izango da. Enkartelada honetan herriko sektore guztietako ordezkariak ordu erdiko txandetan hartuko dute parte. Bestalde, plataformako kideek *Euskal Presoak Euskal Herrira* lema daukaten izarak balkoietan jartzeko deia egiten diete herritar guztiei. Bere sektoreari dagokion orduan joan ezin duena ahal duenean agertu daiteke.

ENKARTELADAKO TXANDAK	
ORDUA	SEKTOREA
10:00-10:30	Tabernariak
10:30-11:00	Kirola
11:00-11:30	Irakaskuntza
11:30-12:00	Lana
12:00-12:30	Kultura
12:30-13:00	Gazteria
13:00-13:30	Mikel Askatu Plataforma
13:30-14:00	Gizarte mugimenduak
14:00-14:30	Dendariak



IMHko 8. promozioko 69 ikasle graduatu dira aurtengo ikasturtean

Makina Erremintaren Institutuko 8. promozioaren graduazio ekitaldia izan zen joan den ostiral arratsaldean, ekainak 25, IMH ikastetxean. Promozio honetan goi mailako heziketa zikloetako 69 ikasle graduatu dira. IMHko arduradunek esan digutenez, gehienek lan kontratua ziurtatuta dute eta lanean hasiko ez direnek IMHn injinerutza ikasketak egiteko aukera izango dute. Bestalde, erdi mailako mekanikazio ikasketak egin dituzten 12 ikaslek ere jaso zuten diploma. Ostiraleko ekitaldia hitzaldi batekin hasi zen eta amaieran, promozioako argazkia atera zuten ikasle guztiek. Ekitaldian Alberto Ortueta AFMko zuzendari nagusia, Gillermo Garate alkatea, Jose Rejo IMHko zuzendari-gerentea eta Jorge Arebalo Lanbide Heziketako zuzendaria izan ziren.



Pilar Ikastetxeko kurtso bukaerako txangoan 180 lagun inguru izan ziren

Ikasturte bukaera dela-eta Pilar Ikastetxeko gurasoek, ikasleek eta irakasleek Iparraldera egin dute txangoa. 180 lagun inguru joan ziren. Sara bisitatu ostean tren kremaieran Larrun mendira igo ziren. Eguna lainotsua tokatu zitzaizen, ordea, eta ezin izan zuten bertatik ikusten den paisaia zoragarriaz gozatu. Gostu zirenean Senpereko lakuaren hertzera jaitsi eta bertan bazkaldu zuten. Arratsaldean, Kanbo eta Ainhoa herriak ikusi ondoren, gaueko 10:30ean itzuli ziren Elgoibarrera. Esan digutenez, egun ahaztezina izan zen Iparraldean pasatutakoa.

Xabier Elizburuk bihar, uztailak 3, bere lehen meza emango du Parrokian

Asteartean, hilak 29, San Pedro egunean, Donostiako Artzai onaren katedralean bost apaiz berri ordenatu zituen Donostiako gotzaiak, Jose Maria Setienek. Donostian apaiz egin diren Luis Gomez oñatiarrak eta Xabier Elizburu elgoibartarrak Elgoibarko San Bartolome Parrokian emango dituzte beraien lehen mezak. Bihar, larunbata, uztailak 3, Xabier Elizburuk emango du meza arratsaldeko 19:00etan, Luis Gomezzen lehen meza, berriz, uztailaren 10ean, igandean izango da goizeko 11:00etan.



Herri Institutuko ikasleek ikasketa amaierako diplomak jaso dituzte

Elgoibarko Herri Institutuan LOGSE 2. maila eta hezkuntza zikloak amaitu dituzten ikasleek diploma jaso zuten joan den astelehenean, hilak 28, Mekako Areto Nagusian. Ekitaldian Iñaki Konde, ikastetxeko zuzendariak gain, Miguel Gurrutxaga enpresa gizona eta Gillermo Garate alkatea izan ziren. Aretoa jendez gainezka izan zen eta ikasleek familiarterkoen eta ikaskideen txalo zaparrada artean jaso zituzten oroigarriak.



Herri Eskolakoak Arraten egun pasa

Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, 90 bat lagun egun pasa joan ziren Arratera. Urtero egiten dute ikasturte amaierako irteera eta aurten San Pedrotik Arratera oinez joan ziren. Bertan hurrek eta gurasoek hainbat jolas egin zituzten, besteak beste, soka-tiran eta zaku karrerak egiten aritu ziren. Ondoren, beraiek prestatutako bazkaria jan zuten eta eguna giro onean amaitu zutela esan digute.

●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Maria Arrieta Lopez
(Ekainak 10)
- Ander Mugerza Garcia
(Ekainak 19)

●●●● EZKONDUTAKOAK ●●●●

- Domingo Guardia Jimenez eta
Carolina Iglesias Iruretagoiena
(Ekainak 19)
- Juan Manuel Carrascal Rios
eta Cristina Lorenzo Andrade
(Ekainak 26)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Maria Dominguez Rodriguez,
84 urte (Ekainak 1)
- Alejandro Aizpurua Arostegi,
82 urte (Ekainak 5)
- Tomas Zubia Arregi,
75 urte (Ekainak 6)
- Nicanora Perez Prieto,
91 urte (Ekainak 8)
- Jaime Guedes Pinto,
87 urte (Ekainak 11)
- Felix Garcia Garate,
84 urte (Ekainak 12)
- Martin Amutxastegi Icaran,
82 urte (Ekainak 15)
- Abundio Eguren Diaz,
78 urte (Ekainak 22)
- Lazaro Muguruza Etxeberria,
93 urte (Ekainak 28)


Tomasa Iriondo Barrutia

(1899-1985)



- 1899ko irailaren 15ean jaio zen, San Roke bailarako Sansongua baserrian. 10 anai-arreba izan ziren, bera bigarrena. Sasoi hartan ez zuen baserri inguruan eskolarik izan, eta familia artean bakarrik ikasi zuen eskola piska bat.
- Gazterik hasi zen etxeko eta baserriko lanak gogor egiten. 12 urterekin abarketa mordo bat josten hasi zen bere ahizparekin batera.
- Orduko ohiturei jarraituz, lagun artean joaten ziren, San Lorentzo, Kurutzeta eta beste hainbat lekuko erromerietara. Baserriko eta soroko lanetan oso emakume saiatua zen, igitaia erabiltzen trebea, makina bat belar eta garo ebaki zituen. Kaletarrei esnea ekartzen urte askotan aritu zen.
- Garagartzako Joxe Leiaristirekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituzten. Joxe, soinujole famatua izan zen, Manuel Gelatxorekin batera erromeria eta ezkontza asko alaitu zituzten trikiti doinuekin.
- Tomasari etxeko buru izatea tokatu zitzaion askotan eta anaiari maiorazgo izateko prestatzen lagundu zion. Anaiak maiorazgoa eskuratu zuenean, Tomasa “Kaminero” ondoko etxera joan zen bizitzera bere familiarekin batera.
- Abarketak josteari ekin zion berriz ere (2 dozena josten zituen eguneko). Baratza eta oilotegia aurrera ateratzeko denbora ere ateratzen zuen.
- Emakume atsegina, sufritu eta herrian oso ezaguna zen. Sinesmen handiko emakumea, Madalako elizara joatea asko gustatzen zitzaion, baita bertsoak eta euskal kantak entzutea ere.
- Familia hazi zuenean, ondo merezitako deskantsua hartu zuen eta urte askoan alaitasunez bizi izan zen. Josefaren seme guztiak izan dira esku pilota zaletuak, Jose Luis Leiaristi adibidez, profesionala izatera iritsi zen.
- Famili giroko emakume zintzo hau, urte asko hartuta 1985eko abenduaren 15ean hil zen.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.**

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01

ION IRIONDO:

"Lasterketa batian 20 kilo inguru galtzen ditxu zaldixak"

Ion Iriondo Sansongua baserrikoa da eta hiru urte inguru daramatza zaldien munduan sartuta. "Dariyo" zaldiarekin ibiltzen da karreretan eta joan zen asteburuan San Pedroko jaietan egin zen zaldi karrera antolatzen aritu da. Sansonguara joan gara eta zaldi artean berarekin hizketan jardun dugu.

- Noiz sartu zinen zaldien munduan?

- Karreretan oin dala hiru urte inguru *Dariyo* zaldixakin hasi nintzan. 40 km.tako karrerekin hasi ginan eta juxuan 130 km.ko karrera bat itxeko asmua dakat. Oin ge-

ratuta euki dou bulto batzuek atera jakozelako. Karreretan kontrol beterinarixo gogorrak itxen ditxue eta gauza asko zaindu bihar izaten dia. Gehixen pulsaziuak begiraten ditxue eta 64tik gora euki ezkerro ez dau pruebia pasatzen.

- Zenbat zaldi daukazu orain?

- Danera zazpi. Arabiak, anglo-arabiak eta kruzatzeko ekarri naban pura sangre bat. Euskal Herrixan ibiltzeko arabiak dia onenak. Aldapan gora eta beheara ondo ibiltzen dia. Baina karrera fuertienak Jerezen, Madril... izaten dia eta orduan zankada luzeko zaldi haun-

dixak bihar dia. Elgoibarren zaldixak ekartzen hasi zianak kruziak ekarri zitxuen eta orduan, Azpeitxiko batek eta guk bakarrik geneuzkan arabiak, oin, berri, danek.

- Nola prestatzen dituzu zaldiak?

- Egutero ez naiz zaldixan ibiltzen, baina lagunak etortzen dia eta atera itxen ditxue zaldixak pasiatzera. Bestela, egun guztian kanpua egoten dia solte. Kortan bakarrik egonez gero ez dia gustura sentitzen. Jateko beti baserrira eruaten ditxut, ze bestela salbaje bihurtzen dia eta ez dabe gainian inor eruaterik nahi izaten. Libre ibiltziak badaka bere harriskua, bildurtzen dianian, korrika hasten dia eta hezixen kontra juten dia.

- Karreretan zer moduzko esperientzia izan duzu?

- Normalian *Dariyo* eruaten dot, oso zaldi gogorra da. Badaude bidian kojoka geratzen dian zaldixak, baina honek oindiok ez dau holakorik sekula in. Zenbat eta kilometro gehixao in orduan eta bizkorrao juten da, pisua galtzen dabalako. Prueba baten 20 kilo inguru galtzen ditxu zaldi batek.

- San Pedroko zaldi karreran antolatzaile lanetan aritu zara. Zer moduz aterra dira gauzak?

- Hasieran zirkuito oso ona geneukan preparauta, baina probatoki berrixa itxeko obrekini hasi zian eta horrek dana izurrao zigun eta aldatu biharra euki


genduan. Dana dala, gero ondo urten zan, akzidenterik ez zan eon eta hori zan bihar zana. Danera 11 partizipante etorri zian, danak baserrietako zaldixak gainera. Nik ez naban espero hainbeste izango zianik. Oso ondo organizaute zauan. Beti ez da erreza hainbeste zaldi juntatzia, danak ondo egotia koinzidentzia bat da. Aurten bi zaldi eruan ditxut baina datorren urtian *Dariyo* ez dot uste eruango dotenik. Zaldi honek prueba luziauak eitxen ditxu, datorren urtian zaldi gazte bat eruangodot.

- Zein gomendio emango zenioke zaldi bat erosi nahi duenari?

- Zaldi bat erosi aurretik bere gainian ondo ibiltzen ikasi bihar da. Zaldixari ez jako kontra in bihar, ze bestela segitxuan konturaten da ez dakizula zaldi gainian ibiltzen. Horregatik onena zaldixari bere kasa lagatzia piskanaka konfiantzia hartu arte.

- Etorkizunerako zein asmo daukazu?

- Nere helburua Frantzian itxen dan karrera inportante bat bukatzia da. Datorren urtian edo hemendik bi urtera juteko asmua dakat. 160 kilometroko karrera gogorra da eta zaldixa ondo dauala seguro jakin bihar da jun aurretik. Espainian 4 bakarrik dia karrera hori bukatu dabena, eta Euskal Herrixan ez dao inor.



San Pedroko probaleku berria

San Pedro bailaran probaleku berria izango dute laster. Orain arteko probak San Pedroko sarreran zegoen probalekuan egiten zituzten, baina hemendik gutxira probekin gozatu nahi dutenak frontoi ondora joan beharko dira. Izan ere, hemen eraikitzen ari dira probaleku berria. Guztira, 7 milioi pezeta-ko kostua izango duen obra da.

Urtean joanak denok zahartzen gaitu eta probalekuari ere gauza bera gertatu zaio. Denborak hondatu egin du eta jadanik ez dauka konponbiderik. Hori dela-eta irtenbide baten bila hasi ziren eta auzotarren esanak kontuan hartuta probaleku berria egitea erabaki zuten. Probatoki berria frontoiaren alboan egongo da. Honela, San Pedroko ermita inguruak kirol kutsua izango du. Frontoi txikian zein handian palan edo esku-pilotan arituko dira batzuek eta handiaren alboan egingo duten probaleku-

rekin euskal kirol erakustaldiak ikusiko dituzte bailarakoek eta bertara hurbiltzen direnek.

Ikusleen erosotasuna ere kontuan hartu dute. Izan ere, frontoiaren eskuineko pareta aprobetxatuko dute grada mugikorak ipintzeko. Honela, idi-probak gustuko dituenak modu egokian eta patxadaz ikusi ahal izango ditu.

Lanak atzeratu

Hasiera batean obren arduradunek probalekua San Pedroko jaietarako bukatuta egongo zela esan zuten, baina joan den asteburuan oraindik lanak amaitu gabe zuden.

Ez zuten kontuan hartu probalekua eraikitzeko erabiliko dituzten harriak bereziak direla eta ekartzen asko tardatzen dutela. “Oso harri bereziak dira eta Badajozetik ekarri behar dira. Badirudi eskari asko daudela eta enpresa banatzaileak guztiei erantzuteko zailtasunak dituela. Horrek atzerapenak eragiten ditu eta hori dela-eta San Pe-



droko lanak ere beranduago amaituko dira”, esan zuen Guillermo Garate Elgoibarko alkateak. “Lanak bi hilabete barru bukatuta egongo direla uste dut eta abuztutik aurrera idi demak ikusi ahal izango ditugu San Pedroko probaleku berrian”. Harriak kolokatzea oso

lan zaila omen da, belau-niko banan banan jarri behar baitira. Inguruotan lan horretan aritzen den bakarra Mallabiko gizon bat da eta bera arduratuko da San Pedroko probaleku berria egoki egiteaz.

Herri kirolak gogoko dituztenek, beraz, apustuak egiteko edo idi-probetan sortzen den lehia giroa ikusteko aukera ezinhobeia izango dute abuztutik aurrera Elgoibarko San Pedro bailarako probaleku berrian.



Goian, probaleku zaharrean, idi-demetarako erabiltzen zen harria.

Behean, probatoki berriko obrak. Abuzturako lanak amaitzea espero dute.

OLAZABAL baserria

Arratsalde eguzkitsua aukeratu genuen Olazabal baserrira joateko. Azkaratera bidean errepidetik bertatik begiztatu genuen Zubia-Gorrititarren bizilekua, eta baserrira iritsi ginenean atarian, eguzki epeletan aurkitu genituen Ramona Gorriti eta Ignacio Zubia. Guk Maitenarekin, baserriko alabarekin, jarrita geneukan hitzordua eta beraien bizimoduari buruz hizketan jardun ginen sukaldean. Arratsalde bero hartan giro hobea egiten baitzuen bertan.

Maitenaren amaren familiaren etxea da Olazabal baserria. “Gorriti apelidua aspalditik dao hemen. Nafarruatik etorritxako artzai bat omen zan gure aurrekuen aurrekoa. Gero aman aldeko familia dana hemen bizi izandakua da”.

Olazabalen beti aritu dira baserriko lanetan, baina bizimodua ateratzeko etxetik kanpo ere egin izan dute lan. “Hemen bizi zian aman osaba-izebek tailarrian in dabe lan. Amak eruan dau baserriko kontua baina beste guztiak kanpua aritu izan dia. Bizitza aurrera ateratzeko baserrixa industria bezela ipini bihar da eta hala eta guztiz ere zaila iruditzen jata”.

Gaztainondoak

Maitenak ezagutu ez zituen arren, garai batean baserriaren aurrean gaztainondo handiak zeuden eta baserria famatua zen horregatik. “Gaztainondoak erre in zian eta gero pinuak sartu zitxuen. Baserri aurrian amamak sagarrondoak ere sartu zitxuan”. Orain etxe ondoan fruitarbola batzuk daukate, baina gainontzeko zelaiak ganaduentzat dira.

Baserriko lana oso lotua dela argi utzi digute Olazabalgo bizilagunek. Ramona eta Ignacio ez dira sekula oporretan kanpora joan, “oin Diputaziora eskatuz gero bialtzen dabe baserrixa eta ganaua zaintzeko bateron bat baina horrek dirua suposatzen dau, eta baserrixa ez du horretarako adina ematen”. Maitenak, ordea, bera oporretako egunak aprobeztatzen dituela aitortu digu, “baina aita eta ama lanerako ez baleude ezingo nintzateke joan”.

Gaur egungo baserriar gehienek



Jauretxe itxurako baserria

“Gorrititarrak betidanik bizi izan dira Olazabalen baina baserria ez zen beraiena. Etxetik kanpora lanean hasi zirenean diru piska bat egin eta Maitenaren amona zenak erosi zuen baserria. Beraien aurretik baserria zeukana Eibarko arkitekto bat zen. Baserria erre egin zen eta berak konpondu zuen bertan bizitzeko asmoarekin. Orduan, jauretxe itxura eman zion. Olazabalgo balkoian dagoen burni forjatua Eibarko etxe batetik ekarri zuen eta etxearen diseinua ere berak egin da. Baina konponketa lanetan Elgoibarko jendeak lagundu zion. Patxi Osoro erlojeroak kontatzen duenez, bera aritu zen argin lanetan eta baserriko kantoi bat berak egin omen zuen.

bezala Olazabaldik kalera jaisteko joera handia daukate. “Nik uste dot lehengo baserrixeetatik jendia kalera jaisten ez zaneke garai haura amaitxu dala. Ezinbestekua da kaliakin kontakto zuzena eukitzia”. Baina Sallobente auzoko erdigunera gutxitan joaten dira, “kanpaia urruti gelditzen jaku”, esan digu Maitenak.

Baserriko alabak ez du oso argi ikusten baserriaren etorkizuna. “Neri gustauko litzaidake hemen bizitzia. Gainera dauzkagun behixek ez dabe lan haundirik ematen. Baina baserriko lana ez da errentagarrixa, behixek ez dabe bizitzeko lain ematen. Kanpotik ekarritxako okelia saltzen da gehixao. Sallobente bailara betetzen hasi da baina itxen dabizen etxiak ez dia baserri-etxiak. Utopia bat da baserrietik bakarrik bizitzia”.

OLAZABAL

■ **Auzoa:** Sallobente.

■ **Bizilagunak:** Ignacio Zubia 68 urte; Ramona Gorriti 66 urte eta Maitena Zubia 32 urte.

■ **Lur hedadura:** 22 hektarea.

■ **Esplotazioa:** Okelatarako 9 limousin, idiskoa, txekorrek eta txahal txikiak. Ortua etxerako.

BIZIKLETA gainean



MADALA-SAN ROKE-MINTXETA JAUREGI-ALBITXURI-MADALA

Distantzia: 8 km.

Denbora: 50 min.

Zailtasuna: erraza



Goian, Ibartola baserria ikus dezakegu. Ur depositoak pasatu ondoren ezkerretara hartuta iritsiko gara hona.



Jauregi baserritik aurrera jarraituta, kilometro inguru egin ostean, Albitxuriko zelaira helduko gara.

Informazioa:

Alberto Agirreazaldeg

■ **1** Madalan irten eta Azkoitirako errepide zaharrean gora abiatuta lehen bi-degurutzean ezkerretara hartuko dugu. IMHko aldapan gora Mintxetara iritsiko gara. Mintxetatik errepidez egingo dugu San Rokeko ermitara doan bidea eta baita handik San Rokeko toperainokoa. Bertan ezkerretara hartu eta Agarre baserritik igarota Berasetaruntz abiatuko gara.

■ **2** Errepidean maldan gora egingo dugu eta ur depositoak pasatu ondoren ezkerretara hartuko dugu Ibartola baserri-rantz. Sanson Etxeberri aurretik pasatu eta errepidea amaitzen denean mendiko pistan sartuko gara.

■ **3** 100m.ko aldapa gogorra igo ondoren pinadia zeharkatuz aldapan behera egingo dugu Mintxeta baserriko bidera iritsi arte. Hasieratik Mintxetara arteko distantzia 3 km. ingurukoa da.

■ **4** Mintxeta baserritik futbol zelai gainean dagoen biderantz joko dugu eta bertatik Alkortako tailerrera joango gara. Hemendik Sallobentera doan bide zaharra hartuko dugu eta Ibartxiki baserria pasatu ostean Ibarreneara iritsi arte jarraituko dugu.

■ **5** Azkoitiko bidera aterako gara eta Jauregi baserrian ezkerretara hartuko dugu. Mintxetatik hona 2 km. inguru daude. Upaitza Goikoa eta Upaitza Behekoa baserrietatik igarota Albitxuriko zelaira iritsiko gara, beste kilometro bat egin eta gero.

■ **6** Albitxuritik Urruzuno auzorantz joango gara eta Aldapa baserriaren azpiko aldetik, aldapan behera trenbidera helduko gara. Handik ibilbidea hasi dugun leku berera abiatuko gara, Madalara alegia.

Ondo ibili!



*A*utoz bidaiatu behar denean arreta handiz egin behar dela denontzat gauza jakina da, are gehiago bidaiak luzeak direnean. Denok lasai bidaiatu ohi dugu autoak inolako matxurarik ez duela jakinez gero. Gehigarri honetan autoa egoera onean izateko eta lasai zein eroso bidaiatzeko zenbait aholku eman nahi dizkizugu.

HYUNDAI

M E N D A R O A U T O A K , S . A .



ELGOIBAR · Olaso, 27 · 943 74 32 00

EIBAR · Otaola, 27 · 943 70 13 82

DONOSTIA · Zumalakarregi etorbidea, 1 · 943 31 22 00

OPEL



A n a l s a

ELGOIBAR · Olaso, 25 · 943 74 40 12

EIBAR · Otaola, 27 · 943 70 08 41

MENDARO · Plaza auzoa, z/g · 943 75 50 72

MAZDA



N I P O N A U T O A K , S . A .

ELGOIBAR · Olaso, 27 · 943 74 02 00

EIBAR · Otaola, 27 · 943 70 13 82

DONOSTIA · Satrustegi etorb., 1 · 943 31 23 55



Ondo ibili!

Autoan seguru joateko aholkuak

Automobilak segurtasun arloan gero eta abantaila hobeak eskaintzen ditu. Baina, autoan seguru joatea gidariaren erantzukizunaren eta trebeziaren araberakoa da. Hala ere, autoak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeko zenbait arau zuzen jarraitu behar dira.



Bolantearen aurrean

- ⌚ Posizio erosoan eta erlajatuan joan. Mando guztietara iristeko gai izan behar da aurrerantz mugitu gabe.
- ⌚ Ispiluak erregulatu eta ondo ikustea oztokatzen duten gauzak kendu.
- ⌚ Egin beharreko bidea motza bada ere, autoan doazenei segurtasun uhala jartzeko eskatu. Golpe batek lesio larriak eragin ditzake.
- ⌚ Gelditzeko ez itxoin erabat nekatuta egon arte. Logurearen simtomarik txikiena igarri orduko gelditzea da onena.
- ⌚ Bidean urrutira begiratzea komeni da, ahal izanez gero aurreko kotxea baino aurrerago doana ikusi, honela, erreakzionatzeko denbora gehiago izango dugu.

- ⌚ Errepidean erabat kontzentratuta gidatu.
- ⌚ Trafiko seinaleetan arreta handia jarri, batez ere abiadura mugak zehazten dituzten seinaleetan eta ibilbidea adierazten dutenetan.
- ⌚ Aurreko kotxearekiko segurtasun distantzia mantendu. Honela, maniobra arriskutsuren bat eginez gero, sahiestu ahal izango dugu. Abiadura zenbat eta azkarragoa izan distantzia ere handiagoa izan beharko da.

Kalitatea

- ⌚ Suabe gidatu, mandoak zakar erabili gabe.
- ⌚ Erlajatur eta tentsiorik gabe bidaiatzeko aukera ematen duen abiadura gidatu.
- ⌚ Errebueltetan edo bihurguneetan ibilbidea egoki jarraitzeko beharrezkoa den bolante mugimendua baino ez da egin behar. Honela, autoak ez ditu mugimendu arraroak egingo eta autoan doazen bidaiariak eroso joango dira.
- ⌚ Bihurgunearen aurretik frenatu, ez errebueltan bertan, batez ere autoak ABSrik ez badu. Hobe da bihurgunean poliki sartzea, errebueltaz azkarregi hartzea baino.
- ⌚ Bihurguneetan ez azeleratu beharrezko momentua baino lehen. Biraketaren amaiera eta ondoren datorrena ikusten denean azeleratu daiteke.

Aurreratzeak

- ⌚ Errepidean bidaiatzen ari garenean arriskurik gehien eragiten duen ekintza da. Beraz, beste auto bat aurreratu baino lehen ongi pentsatu.
- ⌚ Seinaleek aurreratu daitekeela adierazi arren ikuspegia garbia izan arte ez aurreratu.
- ⌚ Zalantzaren bat izanez gero ez aurreratu.
- ⌚ Aurreratze bat egin aurretik, argi izan behar dugu gure atzetik ez datorrela beste autorik aurreratzen, edo gurutzebide baten inguruan egonez gero, errepidera sartzen ari den autorik ez datorrela. Egin behar dugun maniobra beste autoetako gidariei adierazteko intermitenteak erabili.
- ⌚ Aurreratze martxa egokia erabili. Azelerazioa lortzeko beharrezkoa denean erreduzitu, honela arriskua txikiagoa izango da.

GARAJEA
EGAÑA
AUTO KONPONKETAK

Pedro Muguruza etorb. 18, behea
Tel. tailerra 943 74 01 98
Tel. partik. 943 74 20 18 /74 33 85


HOGEI

Bittor Sarasketa, 7
Tel: 943 12 10 00/12 10 19
Faxa: 943 12 70 06
EIBAR





Kontuan edukitzeak

Auto gidari gehienek, udako oporretan egiten dute urteko bidaiarik luzeena. Horregatik, matxurak izateko unerik eta lekurik txarrena izaten da, konfidantzazko mekanikariari deitzeko urrunegi baikaude eta edozein arazo konpontzea nekosoagoa eta garestiagoa baita. Gauza guztiak aurrez prestatu eta antolatzea da arazorik ez izateko modurik egokiena. Beraz, bidaia lasaia eta atsegina izateko hauek dira auto bati begiratu behar zaizkion gauzak:



- ⊕ Motorearen pizketa, karburazioa eta injekzioa.
 - ⊕ Uhala eta korrea.
 - ⊕ Olioaren eta uraren maila.
 - ⊕ Airearen eta olioaren filtroen garbiketa.
 - ⊕ Balazta-pastilak eta likido galerak.
 - ⊕ Direkzioa: direkzio rotulak 100.000 kilometro egin ondoren aldatzen dira baina beti komeni da berriz aztertzea.
 - ⊕ Enbragearen desgastea zaindu.
 - ⊕ Gurpilak: Presioari dagokionez, fabrikatzailearen gomendioak jarraitu (gurpilak hotzak daudenean puztu). Ordezko gurpila puztuta eraman.
 - ⊕ Argiak: faroen garbiketa eta altuera egokia zaindu.
- Kotxeari egin diogun txkekoaz gain, bidaia luze bat hasi aurretik jarraitu beharreko beste aholku garrantzitsu batzuek ere badaude:
- ⊕ Irten aurretik beharrezko guztia soinean daramazula egiaztatu (dokumentazioa, derrigorrezko ordezkotzak...)

- ⊕ Ibilbidea aurrez prestatu, inprobisazioa eta zalantza ez baitira bidailagun onak. Atsedean hartzeko, jateko edo beste edozertarako geldiuoneak aurrakusi.
- ⊕ Heltzea da garrantzitsua, beraz, lehenago irten eta presarik gabe gidatu. 500 kilometroko bidaia batean, batezbeste 10 km/orduko bizkorrago gidatzea apenas da 15 minutuko aurrerapena.
- ⊕ Bidaia hasi aurretik eguraldi iragarpenei kasu egin. Ekaitza, euria edo behelainua iragarrita badaude irteera eguna atzeratu.



Urasandi, S. L.

karrozeriak

Deba kalea, 14 behea - Tel: 943 74 34 00

Aldibi




**CALLOPER
ALMOVIL, S. L.**



Olaso, 23 - Tel: 943 74 20 37 - Faxa: 943 74 35 24 **ELGOIBAR**
Zigarrola, 1 - Tel: 943 71 20 02 - Faxa: 943 79 65 65 **ARRASATE**

AUTO REPARACIONES



ELGOIBARRESAS

Pedro Migel Urruzuno, 2

Tel: 943 74 08 97

Mobila: 608 775 996

Martin Dominguezek irabazi zuen Nahaste Borraste proba

Nagusietan 22 lasterkari izan ziren eta gazteetan 7 baino ez



Ezkerreko argazkian nagusien lasterketari hasiera emateko zain ageri dira partehartzaileak. Eskuinaldeko argazkian, berriz, kategoria guztietako irabazleak sariak eskuetan dituztela azaltzen dira.

Joan den larunbat eguerdian, hilak 26, Kimetz Elkarteak antolatzen duen *Nahaste Borraste* lasterketa Martin Dominguezek irabazi zuen nagusien mailan. Maila honetan, 22 lasterkarik hartu zuten parte, tartean neska bakarrak, Gotzone Aierdik, alegia. 14 urtetik beherakoetan 7 neska- mutilek eman zuten izena. Kategoria honetan Iban Gonzalez izan zen irabazlea eta lehen neska, berriz, Alaitz Merino. Hain zuzen, Alaitzek irabazi zuen gazteen artean antolatzaileek zozketatu zuten mendiko bizikleta.

Nagusien lasterketan Martin Dominguez nagusitu zen, bizikletako probaren hasieran alde egin zuen tropeletik eta lan guztiak ihes eginda burutu zituen, bai zakua lepoan hartuta eta baita saltaka ere. Aurtengoarekin proba hau irabazten duen 4. aldia izan da. Bigarren sailkatua Xabier Zelaia izan zen, irabazlearengandik minutu eta erdira. Ikuslego aldetik Plaza Handia bete egin zen, eguraldi zoragarria egin zuen eta jendeak eskertu zuen, partehartzaileek, berriz, nahikoa berotasun zuten gorputzean.

S
A
I
L
K
A
P
E
N
A

■ 14 urtetik beherakoak ■

- 1 - Iban Gonzalez 10' 43"
- 2 - Antton Alberdi 11' 33"
- 3 - Alaitz Merino 12' 43"
- 4 - Leire Apellaniz 14' 27"

■ Nagusiak ■

- 1 - Martin Dominguez 22' 18"
- 2 - Xabier Zelaia 23' 42"
- 3 - Javier S. Martin 23' 59"

■ Beteranoak A ■

- 1 - Ignacio Perez 24' 21"

■ Beteranoak B ■

- 1 - Antonio Fernandez 25' 31"

■ Emakumeak ■

- 1 - Gotzone Aierdi 38' 45"

■ Farolillo gorria ■

- Dakinta 39' 22"

S
A
I
L
K
A
P
E
N
A

Zur Ta Lur-Elgoibar taldea Espainiako areto futboleko txapeldunorde

Zur Ta Lur-Elgoibar autonomi mailako taldeak Espainiako txapelketako azken fasea jokatu zuen pasa den asteburuan, hilak 26 eta 27, Talavera de la Reinan (Toledo). Azken fase bikaina burutu zuten elgoibartarrek eta baita finalera iristea lortu ere. Finalera sailkatzeko txartela bere taldeko lehenak geratu ondoren eskuratu zuten. Aragoiko txapeldunen aurka hiruna berdindu zuten, Gaztela-Leoiko ordezkariak 5 eta 4 irabazi zieten eta azkenik partidu erabakiorrean 2 eta 1 irabazi zieten Extremadurako txapeldunei. Garai-penaren gola partidua amaitzeko segundu eskas baten faltan sartu zuten eta Jose Ra-



Zur Ta Lur-Elgoibar taldeak luzapenean galdu zuen Talavera de la Reinan (Toledo) jokatu zen Espainiako Txapelketako finala.

mon Uriarte taldeko ordezkariak azaldu digunez, "Txapelketako unerik emozionanteena eta pozgarriena izan zen, de-

nok besarkatuta bukatu genuen eta". Final handia A Coruñaiko Egasa taldearen aurka jokatu zuten, ohorezko mailan ibilitako taldea da. "Taldea guztiak oso profesionalizatuta zeuden, txandal eta zapatila berdinak, masajista, medikua... Gu, berriz, lagun koadrila bat besterik ez ginen eta kamiseta batzuek erosi genituen lotsagarri ez geratzeko". Kirol arloan irudi oso ona utzi genuen ordea, eta meritu handia du horrelako final batera iristeak. Federazioko lehendakariak ere biziki zoriondu gintuen egindako lanarengatik". Finala oso gutxiengatik galdu zuten, arauzko denbora berdinketarekin bukatu baitzen eta luzapenean erabaki zen partiduaren azken emaitza.

3,2 milioiko defizita izan du C.D. Elgoibarrek 98/99an

Datorren denboraldian Haundi 3. mailako *play-off*etan sartzea izango da helburu nagusia

98/99ko balantze ekonomikoak aurkeztu zuen C.D. Elgoibarko zuzendaritzak ostegunean, hilak 24. Julen Konde lehendakariak pasa den denboraldiko balorazioa egin zuen eta arlo ekonomikoan ia-zko aurrekontuaren antzerakoa dutela azpimarratu zuen. Kirol arloari dagokionez, aurtengoa urte txarra izan dela esan zuen, 4 talde mailaz jaitsi baitira, tartean *Haundi*.

Julen Konde C. D. Elgoibarko lehendakariak eta Ricardo Garatek 98/99 denboraldiko Batzar Orokorra aurkeztu zuten Kultur Etxean. Klubak aurten 3.248.462 pezetako defizita eta 36.976.272 pezetako patrimonioa duela esan zuen Julen Kondek. “*Haundi* mailaz jaitsi denez, datorren denboraldian ez ditugu Antena 3ek lehengo urtean eman




Julen Konde C. D. Elgoibarko lehendakariak eta Ricardo Garate diru kontuen arduradunak 98/99ko balantze ekonomikoak aurkeztu zuten ekainaren 24an.

zizkigun 3 milioiak jasoko”. Dirua biltzeko modu berri bat proposatu zuen zuzendaritzak, hau da, Klubean jokatzeko duten haur guztien gurasoak bazkide egitera behartzea. Lehendakariak, bazkide berriak lortzeko beharrezkoa dela esan zuen “el-

goibartarrek futbol partiduak ikusteko aukera izugarria dute. Realeko partiduak ikusteko, adibidez, 3 autobus betetzen dira, eta Eibar, Athletic edo Alavesen partiduak ikustera ere jende asko joaten da. Konpetentzia itzela da, horregatik egin nahi ditugu bazkide jokalarien gurasoak, beste hainbat lekutan ere hala egiten baita”. Ondoren, kirol arloko balorazioa egin zuen zuzendaritzak, “kirol mailan denboraldi txarra izan da, 4 talde mailaz jaitsi baitira: *Haundi*, jubenetako 2 taldeak eta kadeteak. Datorren denboraldiari begira, *Haundi* taldeak 3. mailako *play-off* etan sartzea izango da helburu nagusia. Mailaz igotzea edo ez, beste kontu bat izango da”. Batzarrean aztertu zen beste gai bat, eskubaloitaldetik bereiztea izan zen, “alde biek hartutako erabakia izan da, ez baitgenuen elkarrekin jarraitzeko beharrik ikusten”.

4 elgoibartarrek hartu zuten parte San Pedroko lehen zaldi lasterketan

San Pedroko jaien egitarauak berrikuntza bat ekarri du aurtengoan, San Pedroko 1. zaldi lasterketa, alegia. 11 zaldik hartu zuten parte igandean, hilak 27, San Pedroko eliza inguratzen duten zelaietan. Antolatzaileek prestatutako zirkuitoari 15 itzuli eman zizkioten zaldiek, eta helmugara heltzen lehena Alberto Urkiagaren *Kantido* zaldia izan zen. Bigarren postua Maria Jesus Agirregomezkorta eibartarrak eskuratu zuen *Ribaflor* zaldiarekin. Lehen elgoibartarra Paco Moreno izan zen, honek *Cuco* izeneko zaldiaren gainean burutu zuen ibilbidea. Guztira 4 elgoibartarrek hartu zuten parte lasterketan, aipaturiko Paco Morenoz gain; Ion Iriondok eta *Dariyo* zaldiak, Helen Ronsek eta *Hilbetek* eta Alaitz Calparsorok eta *Zalema* zaldiak. Eguraldiak lagundurik eta kuriositateak bultzatuta jende mordo inguratu zen San Pedrorra. Zaldi lasterketak ez dira




11 lagunek hartu zuten parte San Pedroko 1. zaldi lasterketa arrakastatsuan.

oso ohizkoak paraje hauetan eta jendeak eskertu zuen idea berri hau. Gainera, zaldi zoragarriak ikusi ahal izan ziren, lasterketa irabazi zuen *Kantido* zaldia, adibidez.

● Pagoaga-Elgoibar eskubaloitaldeak 5.postuan amaitu du Espainiako txapelketa

Pagoaga-Elgoibar eskubaloitaldeak Espainiako Txapelketako azken faseko partiduak jokatu zituen pasa den asteburuan Burgosen. Azkenean, bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Nahiko hotz hasi zuten txapelketa elgoibartarrek eta lehen 3 partiduak galdu zituzten. Lehenengo norgehiagoka 12 eta 17 galdu zuten *Amposta*, Kataluniako txapeladunen aurka. Bigarren partidua ere, 14 eta 20 galdu zuten Kanariar irletako *Remudas* talde indartsuaren kontra. Hirugarren partiduan ere ezin izan zuten ezer egin, eta *Clesa-Leon* taldearen aurrean 17 eta 23 galdu zuten. Azken aurreko partiduan erreakzionatzea lortu zuten eta 16 eta 10 nagusitu ziren *Maritim* Valentiako ordezkarien aurka. Bosgarren postua erabakitzen zuen partiduan, berriz, 19 eta 16 irabazi zuten *Estepona* taldearen aurka.



Indarkeriaz hausnarketa

Seguraski Willian Golding Literatur Nobel saridunaren libururik ezagunena honako hau da: "Lord of the flies". Bada, giza izaerari buruzko fabula moral arrakastatsu hau euskaraz irakurtzeko aukera daukagu, "Eulien ugazaba" izenburupean, Joxe Austin Arrietak itzulita, Elkarlanean argitaletxearen eskutik.

Eleberri honetan, aipatu idazleak egoera berezia aurkezten du: hegazkinak istripu bat eduki ondoren, adin ezberdinetako haur talde bat bakarrik dago uharte isolatu batean. Beraz, umeak beraien bizimodua beren kasa antolatu beharrean izango dira biziraun nahi badute. Egoera horrek, bide ematen dio egileari indarkeriaz hausnarketa planteatzeko: ea gizakiak berezkoa ote duen bortizkeria ala egoera jakin eta berezi batean azalratzen duen.

Tarteka gogoeta sakonez jantzirik egon arren, orohar entretenimentuzko eleberritik oso hurbil dago eta gertaeren azkartasuna dela-eta, "Eulien ugazaba" hau erraz eta atseginez irakurtzen da; behin hasita, uztea zaila egiten da.


Jon Eugi

Jesus Mari Etxezarreta debarrak, P. M. Urruzunoidazleari buruzko liburua kaleratu du

Gaztetxoenei zuzenduta dago eta 21 ipuinez osatutako bilduma da

Oiartzungo "Sendoa" argitaletxeak Jesus Mari Etxezarreta idazle debarraren 'Urruzuno' liburua kaleratu du Txirrita sailaren barruan. Irakurle gaztetxoek zuzendutako liburua da eta P.M Urruzuno idazle elgoibartarraren bizitza eta umorezko 21 ipuin biltzen ditu. Jesus Mari 58 urte ditu, lanbidez irakaslea da, hain zuzen, gaztelaniako katedraduna, aldi berean, Euskaltzaindiako urgazlea ere bada. Honako hau idatzi duen seigarren liburua da: olerki eta bertso liburu baina eta bertsolaritzaren historiari buruzko liburu bat argitaratuak baititu, besteak beste.

Txirrita sailaren helburu nagusia, euskal kulturako hainbat bertsolari eta idazle, irakurle gaztetxoenei hurbiltzea da. Dagoeneko Pello Errota, Txirrita, Lasarte edo Uztapide bertsolariei buruzko liburuk argitaratu dituzte. Sendoa argitaletxeak Jesus Mari eman zion idazle eta apaiz elgoibartarrari buruzko liburua idazteko ardura, "idazle elgoibartarrak idatzitako liburuak aztertu eta 21 ipuin politenak aukeratu nituen argitaratzeko. Oso lan interesgarria iruditu zait, baina beldur bat daukat, gaur egungo haurrak hemen kontatzen direnak ulertzeko gai ote diren, alegia. Izan ere, pertsonaiak eta gertaerak ez dira gaur egunekoak: apaizak eta sakristauak, auto bat ikusteak sortarazten duen harridura, ijitoak... hauek guztiak mundu ezezaguna dira gaurko haurrentzat, hala ere, gure arbasoen ohitura eta izakeraren berri jasotzeko istorio aproposak dira".



Txirrita sailak euskal kulturako bertsolariak eta idazleak gaztetxoek hurbidu nahi dizkie. Sail honetan kaleratu da, hain zuzen ere, Urruzunori buruzko liburua.



21 ipuin aukeratu behar izateaz gain, ipuinok euskara batura pasatzerakoan aurkitu ditu zailtasun handienak, "Ironiazko hitzak eta erderakadak dauden bezela pasatu behar dira, bestela umoreak bere zentzua galtzen du. Euskara lantzeko ere balio du, irakurterrazada eta hitz eta esamolde berriak ikasteko aukera ematen du".

Bertso afariak eta zaldi lasterketak estimazio handia izan zuten San Pedroko jaietan

Joan den asteburuan eta asteartean, hilak 29, ospatu zituzten San Pedro auzokoek zaindariaren omenezko jaiak. Eguraldi onak jende asko erakarri zuen, eta auzotarrek prestatutako egitarau zabaletik izan zuten non aukeratua. Egaña, Peñagarikano eta Mendiluzek eskaini zuten bertso afarira 100 lagun inguru bildu ziren eta giro aparta sortu zuten punta puntako 3 bertsolariok. Igandean jokatu zen zaldi lasterketak ere ikusmin handia sortu zuen, horrelako ekintza bat antolatzen zuten lehen aldian baitzen. Azkenik, asteartean, ekainak 29, San Pedro eguna ospatu zuten ohizko

prozesioarekin eta ondorengo mezarekin. Jaiei amaiera emateko, auzotarren arteko bazkaria egin zuten San Pedroko jatetxean.





A

ste honetako erretratua **Ana Mari Urbietak** ekarri digu. Argazkian agertzen diren bi neska gazteak, *Katiuska* tabernako **Ana Mari Urbietak** (ezkerrean) eta **Txarito Zabala** (eskuman), Errosario kaleko ileapaintzailea izandakoak dira. 1.958.urtean, 18 urte zituztenean Arrateko Amabirjinaren egunean aterata dago. Benetan kuriosoak dira zeramatzen jantziak, kolorez beteak. Esan digutenez, “dantza nahikoa egin ondoren, oso gustura itzuli ginen etxera”.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko, 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83




INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak . . . 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria . . 943 743864
Mendaroko Ospitalea . 943 032800
Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
PESA (Eibar) . . 902 10 12 10
Taxi geltokia . . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
Udal Kirol Patronatua . 943 744415
Kultura Zerbitzua . . 943 742158
Mendaroko Udala . . 943 756100
Ongizate zerbitzua . . 943741008
Udaletxea 943 741050
Udaltzaingoa . . . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . 943 741626
Kiroldegia 943 744415
Kontsumo Bulegoa . . 943 743088
Liburutegia 943 743525
Musika Eskola . . 943 742145
Mintxeta 943 744315
Parrokia 943 740842
Postetxea 943 741547
Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . 943 740296
Zaharren Biltokia . . 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola . . . 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre . . . 943 74 02 67
Ezenarro (Meka) . 943 74 44 80
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco . . 943 74 40 73
El Correo Español . 943 74 10 82
Egin 943 10 84 21
Zazpiki Irratia . . 943 74 34 74

8

osteguna

19:00 XAKE TXAPELKETA
Antolatzaileak:
Gazte Asanblada eta
Zubi-Ondo elkarte
Gaztetxean

3

larunbata

10:30 EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA ENKARTELADA
Antolatzailea:
Euskal Presoak
Euskal Herrira plataforma
Plaza Handian

2

ostirala

20:00 HITZALDIA
Antolatzailea:
Elgoibarko *Alkoholiko Anonimoak* Elkarte
Kultur Etxean

4

igandea

18:30 GELATXOrekin DANTZALDIA
Plaza Handian

9

ostirala

18:30 ODOL ATERALDIA
Pedro Migel Urruzuno 8an

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
Plaza Handian
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

ZINEA

Oharra:

Herriko Antzokiko zine komertzialaren emanaldiak Pedro Almodovar zuzendariaren "Todo sobre mi madre" pelikularekin amaitu ziren. Hurrengo ostiralean, hilak 9, hasiko dira Ongarri antolatzen dituen aire libreko zine emanaldiak. Herriko Antzokiko zine komertzialari dagokionez, urrian hasiko da denboraldi berria.

● Mendi irteera Leizaran bailaran barrena

Morkaiko Mendizale Elkartek Leizaran bailaran barrena mendi irteera antolatu du uztailearen 11rako. Morkaikotik adierazi digutenez, Urto eta Arano mendien arteko trabesia egitea da beraien asmoa. Izen-ematea Morkaiko M.E.an ostiral edo larunbat goizetan edo 943 74 02 97 telefonoan egin daiteke. Irteera goizeko 7:30ean izango da Plaza Handitik.

● Haurrentzako yoga ikastaroak uztailean

Surya belardendak haurrei zuzenduriko yoga ikastaroak antolatu ditu uztaileko. Ikasteko adinean dauden gazteek erlaxatzen eta kontzentratzen ikasteko aukera izango dute. Klaseak astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan izango dira, goizeko 11:15etatik 12:15etara Surya belardendak bertan. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 25 34 telefonora deitu.

● Eduardo Gonzalez "Largo"ren omenaldirako txartelak salgai

Abuztuaren 10ean Eduardo Gonzalez "Largo" hil zeneko lehen urtemuga beteko da. Oso pertsona ezaguna zenez, lagunek omenaldia egingo diote uztailearen 17an Lasturren. Joatea nahi dutenek uztailearen 4a baino lehen erosi beharko dituzte txartelak, Malape eta Txuri beltz tabernetan. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte larunbaterako, besteak beste, 'Largo' zenaren oroimenez zuhaitz bat landatuko dute. Ondoren, bazkaria izango da eta ausartenek zezentxoan aurrean ibiltzeko aukera izango dute.



● Xake txapelketa, ostegunean, hilak 8, gaztetxean

Zubi-Ondo Elkartek eta Gazte Asanbladak xake txapelketa antolatu dute. Txapelketa Gaztetxean jokatuko da ostegunean, hilak 8, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Izena ematean 200 pezeta ordaindu beharko dira eta 15 urtetik beherakoek, berriz, 100 pezeta.

● Arantza Urresti margolari elgoibartarraren erakusketa Eibarren

Arantza Urresti, 36 urteko margolari elgoibartarraren erakusketa uztailearen 4ra arte egongo da ikusgai Eibarko 'Topaleku'n. 24 artelan aurkeztu ditu ekainaren 23an inaguratu zen erakusketan eta, batez ere, erretratuak eta paisaiak lantzen ditu.



● Odol ateraldia uztailearen 9an

Odol emaleen Elkartetik aditzera eman nahi dute, datorren ostiraletan, hilak 9, odol ateraldia izango dela Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiei eta bereziki 18 urtetik gorako gazteei odola ematea oso garrantzitsua dela gogorarazi nahi diete.

T X A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gaeuz
3	Bidasolo	Bidasolo
4	Bidasolo	Bidasolo
5	Etxeberría	Etxeberría (Santa Ana kalean)
6	Anduaga	Anduaga
7	Bidasolo	Bidasolo
8	Zabaleta	Zabaleta
9	Etxeberría	Etxeberría (Santa Ana kalean)

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

4 igandea Eizagirre

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Pertsona bat behar da etxeko lanetarako. ☎ 943 74 14 73. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera deitu. Itziar.
- ◆ Asteburuatarako kamarera behar da. ☎ 943 12 73 34
- ◆ Pertsona euskalduna behar da 2 urteko umea zaintzeko. ☎ 943 74 42 97 (20:00etatik aurrera)

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Klinika laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo edadetuak zaintzeko. ☎ 943 74 04 86.
- ◆ 32 urtetako neska eskaintzen da umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. ☎ 943 75 51 93.
- ◆ Sukaldaria eskaintzen da sukaldarako, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ 943 74 38 85. Gloria (goizetan deitu)
- ◆ Esperientziadun emakumea gaixoak zaintzeko prest. ☎ 943 74 04 86
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauzez. ☎ 943 74 27 78

Extebizitzak

- ◆ Apartamentua alokatzen da Alcoceberren. Uztaila, abuztua eta iraila. ☎ 943 74 22 08.
- ◆ Extebizitza salgai Errosario kalean. Ganbara eta altzariekin. Plazatik gertu. ☎ 943 74 17 95.
- ◆ Etxea alokatzen dut Zumaian. Uztaila, abuztua eta iraila. ☎ 943 74 13 82
- ◆ Pisua salgai edo alokairuan Torreviejan (Alicante). ☎ 943 74 24 26 (Domingo Garcia)
- ◆ Udarako baserria alokatzen da Goizuetan, Talde handientzat prestatuta. Aste baterako, hamabostaldirako, zein hilabeterako. ☎ 943 42 79 27
- ◆ Pisua alokatuko nuke altzariekin. Soldata finkoa. ☎ 943 74 08 09 (Jone)
- ◆ Laredon apartamentua alokatzen dut uda honetarako. Hondartza heretzean dago. ☎ 943 7952 80/ 656 71 77 45
- ◆ Etxea alokatzen dut Zumaian. Uztaila eta iraila. ☎ 943 86 05 93 (18:00etatik 21:00etara. Loli)
- ◆ Apartamentua alokatzen dut Torreviejan. Udan. ☎ 943 74 24 50

Bestelakoak

- ◆ Logela bat alokatzen da Arregitorren. ☎ 943 74 18 81. Juani (iluntzean deitu)
- ◆ Arratoi txakur kumeak oparitzen dira. ☎ 943 75 51 93
- ◆ Terrenoa eta txabola eskaintzen ditut, ardiak eta ortua jartzeko aproposa. Elgoibartik hurbil. Interesatuek deitu ☎ 639 90 76 65 telefonora.
- ◆ Eskerrik asko andereño Mari Kruzi eman digun laguntzarengatik, Ikastolako 4. mailakoen partez eta bereziki Maiderrren, Elixabeten eta Itsasoren partez.
- ◆ Urrezko pultsera galdu dut Urasanditik Plaza Handira bitartean. Senarra zenaren oroigarria denez, topatu duenari bueltatzea eskertuko nioke. ☎ 943 74 25 83
- ◆ Ekainaren 22an, 20:00ak aldera King-Kong tabernan Iriondo dendako poltsa bat utzi nuen sandalia batzuekin. Norbaitek aurkitu badu dei dezala mesedez, ☎ 943 74 33 18 telefonora.
- ◆ Pilar ikastetxean 78. urtean amaitu zutenak (65. urtekoak) Bazkaria izango dute irailaren 11n. Joan nahi dutenak deitu telefono honetara: ☎ 639 96 07 87 (Jose Mari San Martin). Deitu 20:00etatik aurrera.

◆ *Backstreet boys* taldearen Donostiako kontzerturako 2 sarrera saltzen ditut. ☎ 943 20 31 92

- ◆ Urrezko gurutzeta eta katea galdu ditut. Jaunartze eguneko oparia da. Jokin 99-V-9 dauka idatzita. Norbaitek aurkitu badu dei dezala mesedez ☎ 943 74 25 09 telefonora.
- ◆ Ekainaren 20an, Plaza Handian perla urdindun zilarrezko pultsera galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala ☎ 943 74 41 54 telefonora.
- ◆ Karabana gordetzeko lokala alokatuko nuke. ☎ 943 74 29 52 (20:00etatik aurrera deitu)
- ◆ Lokala alokatzen dut Santa Ana kalean. Denda jartzeko egokia. ☎ 943 74 12 83

Garajeak

- ◆ Garaje itxia alokatzen da Kiroldegi parean (San Roke). ☎ 943 74 06 09
- ◆ Garajea alokatzen dut Arregitorre kaleko 6. zenbakian. ☎ 943 74 02 63
- ◆ Pista Beltzaren azpian marradun garajea alokatzen da. ☎ 943 74 19 55

OHARRA:
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna **ASTEAZKEN EGUERDIA** da.

Salerosketak

- ◆ Wusner karabana salgai, 5 plaza. Ekipatua. Garajejan gordeta egon da. ☎ 943 74 36 34. Deitu 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 20:00etara.
- ◆ ZZR 600 Kawasaki motoa salgai. Egoera onean. ☎ 630 52 60 52
- ◆ Jatetxe batean erabilitako arkoierako izozgailua salgai. Neurriak: zabalera 113 zm., altuera 86 zm. eta sakonera 60 zm.
- ◆ Volkswagen Polo Classic autoa salgai. 60.000 km. Ekonomikoa ☎ 943 74 16 64.
- ◆ Motorra salgai. G.A.C. Onix 50 c.c. Gorria eta ondo zainduta. ☎ 943 74 12 60 (Gauzez deitu)
- ◆ Roller Aloha Karabana salgai. ☎ 943 77 05 22
- ◆ Adria karabana salgai. 3,5m. 4 pertsonarentzat. Abantzearekin. ☎ 943 74 07 85

Agurrak

- ◆ Zorionak **gure informatiko partikularriari**. Urte bukaeran eskertuko dizugu Ikerrentzako oparixoren batekin. Barreneko lantaldearen partez.
- ◆ Zorionak dantzako **Lourdes** andereñoari, ekainaren 24an urteak bete zituelako. Leire Garateren eta Ainhoa Mendibilen partez.
- ◆ Zorionak **Herri Eskolako 5. mailako**ei, hiru urtez jarraian gelako saria "Osasunkume" programan jaso dutelako. Horrela jarraitu. Lolaren partez.
- ◆ Zorionak **Maitaneri**, ekainaren 30ean 11 urte bete zituelako. Familia guztiaren partez, eta bereziki ahizpa Alasneren partez.



◆ Ummmm... dagoeneko usaintzen ari gara launbatean prestatuko diguzun kafe goxoa. Zorionak **madraza**.



◆ Zorionak **Imanol Ansola Arizmendiarr**ietari, 4 urte beteko dituelako. Familiaren partez.

◆ Zorionak **Aitor**. Muxu haundi haundi bat danon partez eta ondo pasau eguna. Eguna! ez, ez, barkatu egunak dira, ezta?



◆ Zorionak **Ione Iraolari**, hilaren 10ean 6 urte beteko dituelako. Muxu haundi haundi bat aita-txotxo Patxiren eta amatxo Gemma-
ren partez gure poxpolinari.

◆ Zorionak **aita** zure urtebete-tzean. Familiaren partez ondo pasa.



◆ Zorionak **Nereari**, hilaren 5ean 3 urte beteko dituelako. Familia guztiaren partez ondo pasa eguna.

◆ Zorionak **Alazneri**, ekainaren 30ean 7 urte bete zituelako. Familia osoaren partez eta bereziki Leireren partez.



◆ Zorionak **Ainhoari** igandean, hilak 4, 14 urte beteko dituelako. Ama Kontxi, anai-arreba Itsaso eta Iosu eta Basoetakoen partez ondo pasa eta zorionak nota onengatik.

◆ Zorionak **Ainhoari**, gaur 10 urte bete dituelako. Familiaren eta lagun guztien partez ondo pasa eguna.



◆ Zorionak **Ion Menbrillerari** astelehenean 14 urte bete zituelako. Gurasoen eta Nahiaren partez muxu handi bat.





ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen

Langileak behar ditugu

"TOLETXE" kafe antzokian lan egiteko



KAMARERO 1

Egun osorako

Erref.: Toletxe 01

2 KAMARERO

*Astebukaera
eta jaieguretarako*

Erref.: Toletxe 02

ZERBITZARI 1

Egun erdirako

Erref.: Toletxe 03

GARBITZAILE 1

20 orduko lan-astea

Erref.: Toletxe 04

- TOLETXE proiektuaren helburuekin bat etortzea ezinbestekoa izango da kasu guztietan.
- Sektorean esperientzia edukitzea eta elgoibartarra izatea baloratuko dira.

Oharrak:

- Curriculumak jasotzeko azken eguna: uztailaren 9a.
- Curriculumean lanpostuaren erreferentzia zehaztea nahitaezkoa izango da.

Izena emateko eta informazio gehiago:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen

Ubitarte 4, behea

20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)

Aldibi

JAIOBERRIAK GARA

ETA AURRETIK GOAZ

BIGARREN ESKUKO AUTOAK SALTZEN DITUGU



Grupo
Nortekar

BILBOCASION

Jaen, 11
Tel.: 94 410 16 61
BILBO

AUCASA

P. Larramendi, 10
Tel.: 94 410 39 39
BILBO

ALDIK

Mallabierna auzoa, 4
Tel.: 94 681 67 66
IURRETA

ALDIBI

Zigarrola, 1
Tel.: 943 71 20 02
ARRASATE

ALDIBI

Olaso pol., 23
Tel.: 943 74 20 37
ELGOIBAR

ALDIKAR ALMOVIL

Colon pas., 27
Tel.: 943 27 09 99
DONOSTIA

ALDIKAR ALMOVIL

Oria etorbidea, 6
Tel.: 943 27 09 99
LASARTE